Info

IRAKASKUNTZA PUBLIKOA EAE

2026ko azaroaren 2a

Hezkuntza Saila berandu eta motel dabil lan osasun eta segurtasunean



Gaur Lakuan Segurtasun eta Osasun Batzordean izan gara, eta LABek argi adierazi nahi du 30 urteren ondoren, Hezkuntza Saila ez duela lan osasunaren eta prebentzioaren araudia betetzen. Horrek ondorio oso larriak dakarzkigu langileoi egunero. Horren adibide da arrisku psikosozialen gorakada eta, bereziki, azken urtean gertaturiko langileon aurkako erasoen igoera.

> Arrisku psikosozialen ebaluazioa

Iazko ikasturtean egin zen **Arrisku psikosozialen lehen ebaluaketan,** langileen %22ak parte hartu zuen soilik galdetegian. Are gehiago, 254 langilek bakarrik parte hartu zuten fase presentzialean. Parte hartze baxuaren arrazoiak eta azterketan jasotzen diren emaitzak LABen ustez bat datoz, **arazo estruktural baten aurrean gaude.** Izan ere, txostenean langileek funtzio publikoarekin konpromiso handia dutela dute, era berean, identifikazio handia dute lanaren helburu sozialarekin. Aldiz, administrazioak ez du maila berean erantzuten.

LABen ustez oso larriak diren ondorioak azaleratu dira azterketa honen bidez: lan karga altua estrukturala dela; lan denboraren zati handi bat eskakizun burokratikoak betetzera bideratzen dela; zereginen aldaketak kontsulta gabe eta inpaktua baloratu gabe datozela; erantzukizunak zabaltzeko joera orokorra dagoela; eta gabeziak daudela gainbegiratzeko eta osasuna zaintzeko sistemetan, beste askoren artean.

Beraz, **Ebaluazioaren emaitzetan oinarritutako neurri prebentiboak langileen ordezkariak diren sindikatuokin negoziatu eta adostea eskatzen dio LABek Sailari,** sinatutako akordio arautzaileetan jasotzen den bezala, hau da, bilerako edukiak mahai negoziatzailera eramatea exijitzen dugu.

Era berean, azpimarratu beharra dago indarrean dagoen **Lan Hitzarmena ez betetzeak** eta azken hilabeteetako **atzerapausoek** ez dutela egoera hobetzen laguntzen.

> Osasunaren bigilantzia

Lan osasunari lotutako beste alderdi garrantzitsu bat osasun azterketena da. **Egoerari irtenbiderik ezin emanda dabil Hezkuntza Saila,** Araban zein Gipuzkoan gehienbat, gainera esan berri digute ikasturte honetan **bi medikuk erretiroa** hartuko dutela. Urteak aurrera doaz eta arazoak konponbiderik gabe jarraitzen du, administrazioa ez da betebehar honi erantzuteko gai.

Bitartean, oraindik ere **gaixotasun psikologikoak** laneko gaitzen zerrenda ofizialean onartuta ez daudenez, **Mutualitateek badute aukera lanak eragindako kalteak ez onartzeko eta ezkutatzeko.** Beraz, aitzakia hori baliatuaz, **baja arrunt gisa sailkatzen** dituzte. Bitartean, erakundeek absentismoaz hitz egiten jarraitzen dute. Langileon osasuna kolokan jartzen duen sistema baten aurrean gaude.

Zentzu horretan, prebentzioaren ardura ez da betetzen, eta kontrola gero eta gehiago uzten ari dira **esku pribatuetan.** Izan ere, **Espainiako Gobernuak mutuei eskumen gehiago eman dizkie, eta Jaurlaritza neurri hori garatzen ari da.** Etekin ekonomikoak lehenetsiz langileon osasunaren gainetik.

> Erasoen protokoloak

Azken hilabeteetan **ugaritu egin dira langileen kontrako erasoak,** eta ondorioz, horiei aurre egiteko **protokoloak eguneratu eta hobetzeak berebiziko garrantzia dauka.**

Hasteko, **indarrean dagoen erasoen protokoloa ez da eraginkorra,** soilik Ertzaintzarengana jo eta egoera salatzea jasotzen du. Urtebete baino gehiago daramagu protokolo berri baten zain.

Ez da nahikoa erasoak gertatu direnean kudeatzea; aurrez adierazi bezala, **erasoak ez gertatzeko prebentzio neurriak behar ditugu.** Eta horretarako, baliabideak, formakuntza espezifikoa eta administrazioaren inplikazioa ezinbestekoak dira.

Jaurlaritzak langileei egozten die baja kopurua, euren errua balitz bezala. Baina, administrazioaren prebentzio faltak eta legedia ez betetzeak gaixotzen ditu langileak. **Estresa, antsietatea, depresioa...** ez dira "absentismoa". Horiek, errekonozituak ez badira ere, **lanak eragindako gaixotasunak dira.** Eta hori publikoki aitortu egin behar da. Arrisku psikosozialen kudeaketa ezak gaixotasunak, eta kasu larrietan heriotzak ere eragin baititzake.

Egoera hau iraultzeko momentua da, langileon osasunari lehentasuna ematea ezinbestekoa da Hezkuntza Publikoaren kalitatea hobetzeko. Urteetako utzikeria albo batera utzi eta prebentzio neurri eraginkorrak ezinbestekoak dira. **Ondorengoak dira LABen iritziz urgentziaz eman beharreko urratsak:**

1. Langileen errekonozimendu medikoa pasatzeko medikuak kontratatu.
2. Lanpostuetako eta lan-eremuetako arriskuen deskribapena eta ebaluazioak egin eta beharrezko teknikariak inkorporatu.
3. Protokoloen eguneratzea, neurri eraginkorrak jarriz eta denborak laburtuz.
4. Langileak dituzten lan arriskuen inguruan formatu.
5. Ikastetxeetako prebentzio delegatuei behar bezalako formakuntza eta baliabideak eman.

Era berean, **LABek lanean jarraituko du Administrazioak langileon lan osasuneko araudia bete dezan.** Zentzu horretan, LABentzat ezinbestekoa da prebentzio neurriak, baliabideak, protokolo eraginkorrak edota formakuntza espezifikoak ezartzea administrazioak.

2 de noviembre del 2026

El Departamento de Educación avanza con lentitud y retraso en salud y seguridad laboral



Hoy hemos participado en Lakua en el Comité de Seguridad y Salud. LAB quiere dejar claro que después de 30 años, el Departamento de Educación no está cumpliendo la normativa de salud laboral y prevención. Esto nos trae consecuencias muy graves a los y las trabajadoras a diario, un ejemplo de ello es el aumento de los riesgos psicosociales y especialmente el aumento de las agresiones a los trabajadores ocurridas en el último año.

> Evaluación de riesgos psicosociales

En la **primera evaluación de Riesgos Psicosociales** que se realizó el curso pasado, sólo el 22% de la plantilla participó en el cuestionario. Es más, sólo 254 trabajadoras participaron en la fase presencial. Tanto las razones de la baja participación y resultados obtenidos en el estudio coinciden, **estamos ante un problema estructural.** El compromiso de los y las trabajadoras con la función pública de la educación es alto, así como su identificación con el objeto social del trabajo. En cambio, la administración no responde al mismo nivel.

A través de este análisis se han puesto de manifiesto conclusiones que LAB considera muy graves: que la alta carga de trabajo es estructural; que gran parte del tiempo de trabajo se destina a cumplir con los requerimientos burocráticos; que los cambios de tareas vienen sin consulta y sin valorar el impacto; que existe una tendencia generalizada a ampliar responsabilidades; y que hay carencias en los sistemas de supervisión y vigilancia de la salud, entre otros muchos.

Por lo tanto, **LAB pide al Departamento que las medidas preventivas basadas en los resultados de la Evaluación se negocien y acuerden con los sindicatos representantes** de los y las trabajadoreas, tal y como se recoge en los acuerdos firmados, es decir, exigimos que los contenidos de la reunión se trasladen a la mesa negociadora.

Hay que destacar el i**ncumplimiento del Convenio Laboral vigente** y los retrocesos de los últimos meses tampoco contribuyen a mejorar la situación.

> Vigilancia de la salud

Otro aspecto importante relacionado con la salud laboral es el de los exámenes de salud. **El Departamento de Educación sigue sin poder dar soluciones a la situación**, especialmente en Araba como en Gipuzkoa. Añadir que **este año se van a jubilar 2 médicos,** por lo que la situación se agravará. Los años pasan y el problema sigue sin solución, la administración no es capaz de responder a ninguna obligación.

Mientras tanto, dado que las **enfermedades psicológicas** aún no están admitidas en la lista oficial de dolencias del trabajo, **las Mutuas pueden no reconocer y ocultar los daños causados por el trabajo.** Por lo tanto, valiéndose de esa excusa, **los clasifican como bajas ordinarias.** Mientras, las instituciones siguen hablando de absentismo. Estamos ante un sistema que pone en jaque la salud de los trabajadores.

En este sentido, la responsabilidad de la prevención no se cumple y el control se está dejando cada vez más en **manos privadas.** De hecho, **el Gobierno español ha otorgado más competencias a las mutuas, una medida que el Ejecutivo autonómico está desarrollando.** Priorizando los beneficios económicos sobre la salud de los trabajadores.

> Protocolos frente a las agresiones

En los últimos meses se han **multiplicado las agresiones contra los y las trabajadoras,** por lo que actualizar y mejorar los protocolos para hacerles frente es de vital importancia.

Para empezar, **el protocolo de agresiones vigente no es eficaz,** sólo recoge dirigirse a la Ertzaintza y denunciar la situación.

No basta con gestionar las agresiones cuando se han producido; como se ha indicado anteriormente, **necesitamos medidas preventivas para evitar que se produzcan.** Llevamos más de un año esperando a uno nuevo. Y para ello, los recursos, la formación específica y la implicación de la administración son imprescindibles.

La falta de prevención por parte del Gobierno Vasco y el incumplimiento de la normativa tienen consecuencias directas sobre la salud del personal.

Además, se responsabiliza a las propias personas trabajadoras del número de bajas laborales, como si fueran culpables de su situación. **El estrés, la ansiedad y la depresión no son «absentismo».** Son problemas de salud que, cuando están relacionados con las condiciones laborales, deben reconocerse como tales. Es necesario visibilizar públicamente esta realidad y asumir las responsabilidades correspondientes. La falta de evaluación y gestión de los riesgos psicosociales puede provocar graves problemas de salud e incluso, en los casos más extremos, causar la muerte.

> Medidas urgentes para proteger la salud del personal

Es el momento de revertir esta situación, dar prioridad a la salud de los trabajadores es imprescindible para mejorar la calidad de la Educación Pública. Dejar a un lado años de dejadez y medidas preventivas eficaces son imprescindibles. **LAB considera que los pasos a dar con carácter de urgencia son los siguientes:**

1. Contratar médicos para pasar el reconocimiento médico de los trabajadores.
2. Realizar la descripción y evaluaciones de riesgos de los puestos de trabajo y áreas de trabajo e incorporar el personal técnico necesario.
3. Actualizar los protocolos, adoptando medidas eficaces y acortando tiempos.
4. Formarse en torno a los riesgos laborales con trabajadores.
5. Proporcionar la formación y recursos adecuados a los delegados de prevención de los centros.

Asimismo, **LAB seguirá trabajando para que la Administración cumpla con la normativa de salud laboral del personal.** En este sentido, para LAB es imprescindible que la administración establezca medidas preventivas, recursos, protocolos eficaces o formaciones específicas.